



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA

**Gratu Bikoitza: Lehen Hezkuntza + Haur Hezkuntza /
Filosofia / Gizarte Antropologia / Gizarte Hezkuntza /
Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / Pedagogia**

www.ehu.eus

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



Gradu Bikoitza: Lehen Hezkuntza + Haur Hezkuntza **6. or.** /
Filosofia **8. or.** / Gizarte Antropologia **10. or.** /
Gizarte Hezkuntza **12. or.** / Haur Hezkuntza **14. or.** /
Lehen Hezkuntza **16. or.** / Pedagogia **18. or.**

Gure formula: hezkuntza, gizartea eta pentsamendu kritikoa

Zer gaitasun eduki beharko dituzte etorkizuneko hezitzaileek? Gure fakultatean irakasleak prestatzen ditugu nahitaezko hezkuntza maila guztietarako, hala Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako, nola Bigarren Hezkuntzarako, irakasleak izateko masterraren bidez. Era berean, Gizarte Hezkuntzan, eskolaz kanpoko hezkuntza eta gizarte testuinguruetan jarduteko profesionalak gaitzen ditugu. Eta Pedagogian, berriz, hezkuntza/prestakuntza prozesuetako adituen formazioaz arduratzen gara, hezkuntza sistemetan, testuinguru sozio-kulturaletan eta enpresa edo erakundeetan lan egiteko.

Hori dela eta, ikastegiak ikuspegi ezin hobea du hezkuntza sistemaren eta bizitza osoko formazioaren erronken analisia egiteko eta erantzunak emateko.

Gainera, gure ikastegian, hezkuntzak beste bi arlorekin egiten du bat: Filosofia eta Antropologia. Biek ere pentsamendu kritikoa bultzatzen dute, zeina ezinbestekoa baita gauzak zalantzan jartzeko eta gure gizartea eredu zuzenago baterantz eramateko. Gure gizarte konpromisoa saihestezina da, eta bereziki zaintzen ditugu euskal kultura eta hizkuntza.



FAKULTATEA ZENBAKITAN

6 + 1
gradu
titulu gradu
bikoitz

9
master eta berezko
titulu

2
eraikin

230
irakasle

38
profesional,
administrazio eta
zerbitzuen arloan

2.500
ikasle



Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HEFA)

HEFA-I eraikina

Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Gizarte Antropologia eta Filosofia
Tolosa etorbidea, 70. 20018 Donostia

HEFA-II eraikina

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Oñati plaza, 3. 20018 Donostia

<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea>

GRADU titulazioetako idazkaritza

HEFA-II eraikina (Oñati plaza,
3. 20018 Donostia)
943 01 8235 / 8236 / 7041 / 8456
hefa.idazkaritza@ehu.eus



GURE AZPIEGITURAK

Irakaskuntzarako guneak:

- Irakaskuntza dinamikoa eta kooperatiborako gelak.
- Gorputz adierazpeneko gelak
- Musika adierazpeneko gelak
- Adierazpen plastikorako gelak
- Zientzia esperimentalen didaktikarako laborategiak
- Psikomotrizitate gela
- Ikus-entzunezko gela
- Balio anitzeko gelak

Ikasleek beren kabuz erabiltzeko guneak:

- Informatika gelak
- Dokumentazio Zentroa

Beste gune batzuk:

- Idazkaritza eta atezaindegia
- Kafetegia
- Kopia gintza zerbitzua





Garatu zure gogoetarako gaitasuna eta zure kultura kontzientzia.



MUGIKORTASUN PROGRAMAK

 **SICUE**
Espainiako unibertsitateak

 **ERASMUS +**
Europako unibertsitateak

 **Latinoamerika eta beste norako batzuk**



[Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programen informazio guztia.

IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

*Filosofia, Gizarte
Antropologia, Gizarte
Hezkuntza eta Pedagogia*
Euskaraz eta gaztelaniaz.

*Haur Hezkuntza, Lehen
Hezkuntza eta Gradu
Bikoitza: Lehen Hezkuntza +
Haur Hezkuntza*

Euskaraz.


Titulazio guztietan irakasgai
batzuk ingelesez ikasteko
aukera.

UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

Askotariko hitzarmenak
izenpetu dira,
practicumaren behar
guztiei erantzuteko.

Practicumaren helburua
da lan profesionala egiteko
beharrezkoak diren
ezagutzak, gaitasunak eta
trebetasunak garatzea.
Practicumak laneratze
prozesua errazten du; izan
ere, unibertsitatea eta lan
arloan lotzen, eta teoria eta
praktika uztartzen ditu.

NON EMATEN DIRA GURE GRADUAK?



Bizi Gipuzkoako Campusa!



+10.000 ikasle



9 ikastegi



1 unibertsitate
egoitza

Ostatu zerbitzua:
ostatua aurkitzen
lagunduko dizugu



3 biblioteka



Kultura, musika eta
arte jarduerak



1 kiroldegi
Itunpeko kirol
zentroak



Ikasi hizkuntzak
Hizkuntza
egiaztagiriak



Enplegu Gunea



Gratu Bikoitza LEHEN HEZKUNTZA + HAUR HEZKUNTZA

Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Gratu Bikoitza egitean, bi gradu egiten ari zara: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, eta bost urteak burutzan bi tituluak eskuratuko dituzu. Beraz, bi gradu hauen ezaugarriak eta helburuak bermatuko dira gradu bikoitzaren ibilbidean zehar, haurraren 0-12 urte arteko ziklo osoa hartuz.

Gratu Bikoitzean, 40 ikaslez osatutako talde autonomoaren bidez, prestakuntza akademiko teorikoa eta praktikoa eskuratuko duzu, erronka handi horri ekiteko. Haurren garapen pertsonalean laguntzeko beharrezkoak diren tresnak barnetatuko dituzu; eduki pedagogikoa, psikologikoa, zientifikoa, etikoa eta soziala, hizkuntzakoa, motorra, matematikoa eta teknologikoa duten gaien bidez. Eta bost urtetan zehar lau praktikaldi egiteko aukera eskainiz.

Horretarako, bost urteko ibilbidea izango duen proposamena eraiki da, bi graduetakoko formazioa bermatuz eta azken urtean, Lehen Hezkuntzan eskaintzen diren aipamenetako bat egiteko aukera emanez (lan irteera berezitua duten *Hezkuntza Berezia* edo *Atzerriko Hizkuntza* eta, bestela, *Euskara*, *Hezkuntza Tresna* edo *Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak Lehen Hezkuntzan*).

Sarrera baldintza:

Euskarazko B2 titulua izatea.

* *Gratu hau HEFA-II eraikinean ematen da.*



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu bikoitz honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Haurren nortasuna eta haien garapen emozionala, soziala eta kognitiboa bultzatzeko; hizkuntzaren eboluzioa ezagutzeko; ikasketa autonomoaren eraikuntza errazteko; norbanakoen, gizartearen eta kulturen aniztasuna errespetatzeko; ikasgela barruan eta kanpoan bizikidetzak sustatzeko; familia hezkuntzari lotutako gaietan gurasoak orientatzeko; aniztasuneko testuinguruetan, genero berdintasuna, parekidetasuna eta giza eskubideen errespetua aintzat hartuko dituzten ikaskuntza espazioak diseinatzeko; eta egungo gizartean hezkuntzaren funtzioa, aukerak eta mugak ezagutzeko.

Irteera profesionalak:

Irakaslea, Lehen Hezkuntzako etapetan eta Haur Hezkuntzako zikloetan, ikastetxe publiko nahiz pribatuetan.

Baita hezkuntzari lotutako beste arlo batzuetan ere: ludotekak, museoak, ospitaletako gelak, espetxetako gelak, gobernuz kanpoko erakundeak, argitaletxeak, eta abar.

Haur Hezkuntzako 0-6 urteko haurren garapen kognitiboa, nortasuna, autoestimua, izaera, balioak eta adimen emozionala garatzea interesatzen bazaizu, eta, era berean, 6-12 urteko haurrek ikasteko duten jakin- mina eta interesa proiektuen eta tailerren bitartez aztertu eta, horretarako, beharrezkoak diren lan tresnetan sakondu nahi baduzu eta horri buruzko prestakuntza praktikoteko beharrezkoa eskuratu nahi baduzu; Oinarriko hezkuntzaren ibilbide osoan aritzeko gogoia baduzu, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza Gradu Bikoitza da zure aukera.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 66 kreditu (oinarrizko 42 kreditu + nahitaezko 24 kreditu)

1. lauhilekoa

- Garapenaren Psikologia Eskola Adinean
- Hezkuntzaren Soziologia (ingeles ez bakarrik)
- Hezkuntzaren Teoria eta Historia
- Irakasle Funtzioa
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena -Euskara eta Gaztelania- Haur Hezkuntzan I

2. lauhilekoa

- Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I
- Didaktika Orokorra
- Gizarte Zientziak eta beren Didaktika I - Lehen Hezkuntza
- Hezkuntzaren Psikologia
- Matematika eta bere Didaktika I - Lehen Hezkuntza (ingeles ez bakarrik)
- Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I

BIGARREN MAILA 63 kreditu (oinarrizko 19 kreditu + nahitaezko 44 kreditu)

1. lauhilekoa

- Practicum I Haur Hezkuntzan (urtekoa)
- Haurtzaroaren Psikologia - Haur Hezkuntza
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena -Euskara eta Gaztelania- Haur Hezkuntzan II
- Musika Lehen Hezkuntzan
- Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan

2. lauhilekoa

- Practicum I Haur Hezkuntzan (urtekoa)
- Eskola Inklusiboaren Oinarriak
- Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza - Haur Hezkuntza
- Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan
- Ikastetxearen Antolakuntza
- Informazio eta Komunikazio Teknologiak Haur Hezkuntzan

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

LEHEN HEZKUNTZA

1. lauhilekoa

- Gizarte Zientziak eta beren Didaktika II (urtekoa)
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (urtekoa)
- Matematika eta bere Didaktika II (urtekoa)
- Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan II (urtekoa)
- Practicum II Lehen Hezkuntzan (urtekoa)
- Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktika

2. lauhilekoa

- Gizarte Zientziak eta beren Didaktika II (urtekoa)
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (urtekoa)
- Matematika eta bere Didaktika II (urtekoa)
- Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan II (urtekoa)
- Practicum II Lehen Hezkuntzan (urtekoa)
- Atzerriko Hizkuntza eta bere Didaktika

LAUGARREN MAILA

HAUR HEZKUNTZA

63 kreditu (nahitaezko 51 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (urtekoa)
- Practicum II Haur Hezkuntzan (urtekoa)
- Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika
- Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan

2. lauhilekoa

- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (urtekoa)
- Practicum II Haur Hezkuntzan (urtekoa)
- Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan II
- Garapen Psikomotorra II
- Musika Adierazpenaren Garapena II
- **GRADU AMAIERAKO LANA: HAUR HEZKUNTZA**

BOSGARREN MAILA

LEHEN HEZKUNTZA

60 kreditu (nahitaezko 18 kreditu + hautazko 30 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

Urtekoa

- Practicum III Lehen Hezkuntzan
- **GRADU AMAIERAKO LANA: LEHEN HEZKUNTZAko aipamen batean**

Hautazkoak

Lehen Hezkuntzako hautazko irakasgaien artean aukeratu behar da, egin nahi den aipamenaren arabera.

AIPAMENAK - LEHEN HEZKUNTZA

- Hezkuntza Berezia (1A)
- Euskara, Hezkuntza Tresna (2A)
- Atzerriko Hizkuntza (3A)
- Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak Lehen Hezkuntzan (4A)



FILOSOFIA GRADUA

Jakintza adarra: **Arteak eta Giza Zientziak**

Filosofiak gizakia aztertzen du, haren dimentsio guztiak aintzat hartuta. Jakintzari, egiari, edertasunari, adimenari eta hizkuntzari buruzko gogoetak egiten ditu. Diziplina bizia eta malgua da; izan ere, pertsonengan eragina duten garaian garaiko alderdiei erreparatzen die. Gaur egun, esate baterako, zientziaren etika (eutanasia, klonazioa), enpresen gizarte erantzukizun korporatiboa eta integrazio gatazkak aztertzen ditu. Egungo gizarteak filosofoen beharra du.

Filosofiako Graduak prestakuntza emango dizu, giza esperientziaren eta giza jardueraren askotariko alderdiren gainean ikuspegi kritikoa eta argudiatua izan dezazun. Era berean, zientziak egoki erantzun ezin dituen arazoak aztertzen ikasiko duzu.

Horrez gainera, borondatezko praktikak egin ahal izango dituzu, filosofiak ekarpen handiak egin ditzakeen arlo jakinetan.

Gaitasun kritikoa eta jakin-min intelektuala dituen pertsona bazara eta filosofia eta zientzia gaien inguruan ikuspegi humanistikotik gogoeta egitea atsegin baduzu, Filosofiako Gradua aukera egokia da zuretzat.

** Gradu hau HEFA-I eraikinean ematen da.*



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Idea filosofikoen oinarriak ulertu eta modu kritikoz interpretatzeko; egungo egoeren azterketa eta arrazonomenduen indarra eta zuzentasuna ebaluatzeko; balioekin konprometitu eta, oro har, giza jokabidearen ondorioekin loturiko auzien tratamendurako ikuspegi filosofikoz erantzuteko.

Irteera profesionalak:

Graduatu ondoren, hainbat lan arlotan aritzeko aukera izango duzu:

- Enpresetako gizarte erantzukizun korporatiboko batzordeak.
- Komunikazio, politika eta publizitate kabineteak eta aholkularitzak.
- Kultura kudeaketa eta bitartekaritza: museoak, fundazioak, agiritegiak, administrazio publikoak...
- Hedabideak eta argitalpenen mundua.
- Gizarte zerbitzuak.
- Irakaskuntza eta ikerketa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Antropologiarako Sarrera I
- Filosofiako Oinarrizko Testuak
- Filosofiarako Sarrera I
- Pentsamenduaren Historia I
- Soziologia

2. lauhilekoa

- Antropologiarako Sarrera II
 - Antropologiako Oinarrizko Testuak
 - Filosofiarako Sarrera II
 - Pentsamenduaren Historia II
 - Etika
-

BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Antzinaroko Filosofiaren Historia
- Estetika eta Arteen Teoria I
- Filosofia Politikoa I
- Hizkuntza Klasikoak
- Logika I

2. lauhilekoa

- Erdi Aroko Filosofiaren Historia
 - Etika II
 - Ezagutzaren Teoria I
 - Hizkuntzaren Filosofia I
 - Logika II
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Aro Berriko Filosofiaren Historia
- Filosofia Politikoa II
- Hizkuntzaren Filosofia II
- Metafisika I
- Zientziaren Filosofia I

2. lauhilekoa

- Filosofia Garaikidearen Historia
 - Estetika eta Arteen Teoria II
 - Ezagutzaren Teoria II
 - Metafisika II
 - Zientziaren Filosofia II
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (hautazko 48 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

Hautazkoak

- Antropologia Filosofikoa
- Antzinaro eta Erdi Aroko Filosofiako Oinarrizko Obrak
- Euskararen Arauak eta Erabilerak
- Gaur Egungo Etikari buruzko Eztabaidak
- Gogoaren Filosofia
- Justizia eta Eskubideak XXI. Mendean
- Zientzien Filosofia eta Historia

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Aro Berriko Filosofiako Oinarrizko Obrak
- Estetika Garaikidea
- Filosofia eta Literatura
- Filosofia Garaikideko Oinarrizko Obrak
- Filosofia, Logika eta Hizkuntza
- Filosofia, Zientzia eta Gizartea
- Komunikazioa Euskaraz: Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak (Filosofia eta Antropologia)

GRADU AMAIERAKO LANA



GIZARTE ANTROPOLOGIA GRADUA

Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Gizarte Antropologiak giza esperientzia eta haren dibertsitatea aztertzen ditu, denboran eta espazioan, eta, horrez gainera, gaur egungo gizarte gertaerak, hala nola desberdintasun sozioekonomikoak; identitate etnikoak, klaseak, generoak, erlijioak eta adina; immigrazioa eta gizarte politikak; herri kulturaren eta kultura tradizionalaren adierazpen konplexuak eta gizarte eta kultura aldaketa egoeren ondorioak.

Gizarte Antropologiako Graduak gizarte bizitzaren konplexutasuna aztertzeko tresna teorikoak eta praktikoak emango dizkizu. Hala, jakintza horiek aplikatzeko gai izango zara bai gizarte eta kultura desberdinen azterketan eta ulermenean, bai gaur egungo gaien analisisian, landa lanen eta esku hartzeen bidez. Azken batean, gizartearen gaineko foku anitzeko erradiografia zabala eta zehatza eskuratuko duzu.

Laugarren mailan, gainera, nahitaezko kanpoko praktiken bidez, bertatik bertara eta sakontasunez ezagutuko dituzu antropologoen lanak.

Gizarte errealtatea eta horretan gertatzen diren prozesuak ezagutzeko interesa baduzu, jakin-mina, sormena eta jarrera kritikoa duen pertsona bazara, historia eta kultura atsegin badituzu, eta dibertsitateak eta kultura aniztasunak planteatzen dizkiguten erronka berriek zirrara eragiten badizute, zure lekua Gizarte Antropologiako Graduan dago.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Gizarte zientzien teoriak, oro har, eta, bereziki, antropologiarenak ezagutzeko; giza erakundeak aztertzeko eta azaltzeko; landa lanetan oinarritutako ikerketa etnografikoak egiteko; testuen analisisen bidez, kultura dibertsitatea aztertzeko, eta antropologia lanaren oinarri metodologikoak eta teknikoak ulertzeko.

Irteera profesionalak:

Lan aukeren multzo zabala izango duzu, hainbat arlotan:

- Bitartekaritza eta aholkularitza: gizarte aniztasuna, generoa eta desberdintasuna, kultura askotarikotasuna, migrazioak, giza eskubideak, kultur artekotasuna, etab.
- Kultura promozioa, kontserbazioa eta gestioa: museoak, eta kultura eta etnografia ondarea; tokiko eta komunitate garapena; etab.
- Aholkularitza ikus-entzunezkoen, zinemaren eta argitalpenen industrian.
- Prestakuntza kultura aniztasunean.
- Giza, osasun eta gizarte baliabideei buruzko aholkularitza.
- Irakaskuntza eta ikerketa

* Gradu hau HEFA-I erakinean ematen da.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Antropologiarako Sarrera I
- Filosofiako Oinarrizko Testuak
- Filosofiarako Sarrera I
- Pentsamenduaren Historia I
- Soziologia

2. lauhilekoa

- Antropologiarako Sarrera II
 - Antropologiako Oinarrizko Testuak
 - Filosofiarako Sarrera II
 - Pentsamenduaren Historia II
 - Etika
-

BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Antropologia Politikoa
- Erritualak eta Sinesmenak
- Gizarte Antropologiaren Historia
- Metodo eta Teknika Kualitatiboak I
- Populazioa eta Demografia

2. lauhilekoa

- Ahaidetasunaren Antropologia
 - Antropologia Ekonomikoa
 - Antropologia Sinbolikoa
 - Metodo eta Teknika Kualitatiboak II
 - Kritika Feminista Gizarte Antropologian
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Euskal Kultura I
- Genero Sistemak: Kultura arteko Ikuspegia
- Kultura Politika eta Kudeaketa
- Metodo eta Teknika Kuantitatiboak
- Zientziaren Filosofia I

2. lauhilekoa

- Euskal Kultura II
 - Antropologiarako Iturri Dokumentalak
 - Gizarte Teoria eta Egitura
 - Kultura arteko Hezkuntza
 - Zientziaren Filosofia II
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 18 kreditu + hautazko 30 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Practicum

Hautazkoak

- Antropologia eta Hizkuntza
- Euskararen Arauak eta Erabilerak
- Museoak, Kultura Ondarea eta Arteak

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Espazioaren Antropologia
- Estetika Garaikidea
- Filosofia eta Literatura
- Gorputza, Osasuna eta Gaixotasuna
- Ikusizkoetan Oinarritutako Antropologia
- Komunikazioa Euskaraz: Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak (Filosofia eta Antropologia)
- Mugikortasuna eta Migrazioa

GRADU AMAIERAKO LANA



GIZARTE HEZKUNTZA GRADUA

Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Elkartasuna, inklusioa, giza eskubideak, hezkuntza eta gizarte kontzientzia oinarritzko kontzeptuak dira Gizarte Hezkuntzaren esparruan. Izan ere, hezkuntzan, espazio formalaren jakintza teorikoak eskuratzea bezain garrantzitsua da hezkuntza espazio ez-formala, zeinak gizabanakoari laguntza ematen baitio gaitasunak, ahalmen intelektualak eta moralak gara ditzan; guztiak ere garrantzi handikoak gure gizartean.

Gizarte Hezkuntzako Graduan, esku-hartze sozio-hezitzaileak aztertzen, ebaluatzen eta diseinatzen ikasiko duzu, hainbat testuingurutan eta era askotako talde eta gizabanakoentzat, arreta berezia jarrita egoera zaurgarrienean edo gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonengan. Halaber, premia handieneko kolektibo eta pertsonen bizi kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren tresnak eskuratuko dituzu, haien garapen pertsonalean, sozialean eta komunitarioan lagunduaz, eta baita haien inklusioan eta autonomian ere.

Horrez gain, hirugarren eta laugarren mailan, nahitaezko praktiken bidez, bidez, elkarte, fundazio eta kooperatiba ezberdinek kudeatutako hezkuntza proiektuetan, programetan eta zerbitzuetan parte hartuko duzu.

Gizarte kontzientzia handiko pertsona solidarioa bazara, enpatia handia eta gizarte trebetasunak badituzu, lankidetzeta eta talde lana gogokoak badituzu eta mundu hobeto bat posible dela uste baduzu, zure aukera onena Gizarte Hezkuntzako Gradua da.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Esku-hartze sozio-hezitzailearen oinarri teorikoak (psikologikoak, soziologikoak eta pedagogikoak) ulertzeko; gizarte errealitatea aztertze eta ulertzeko; berrikuntza prozesuak garatzeko; proiektu eta programa sozio-hezitzaileak diseinatzeko eta, taldeak, baliabideak, zerbitzuak eta erakundeak antolatze eta kudeatzeko, arazoak konpontzeko teknika eta estrategia egokienak erabilia.

Gradu hau bukatutakoan Pedagogiako edo Gizarte Langintzako eskuratzeko, 90 ECTS egin behar dira.

Irteera profesionalak:

Aukera ezberdinak izango dituzu, batez ere esku-hartze sozio-hezitzailearen arloan, kasu askotan politika publikoen bidez sustatuak eta hirugarren sektore sozialeko elkarte sareak kudeatuak:

- **Gizarte Zerbitzuak:** adin txikikoen babes sistema, esku-hartze sozio-hezitzailea eta psikosoziala (familia esku-hartzea, kale heziketa), inklusio sozial beharrei erantzuten dieten eguneko zentroak, eguneko zentroak eta egoitzak bazterketa eta marjinazio egoeran daudenentzako, tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako egoitza zentroak, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako eguneko zentroak eta egoitzak, adineko pertsonentzako egoitzak, ...
- **Gazteria:** espazio soziokulturalak eta aisialdiaren dinamizazioa.
- **Justizia:** gazte justiziaren arloa, famili elkarketarako guneak, birgizarteratze pisuak, ...
- **Enplegua:** orientazio soziolaborala.
- **Helduentzako etengabeko prestakuntza.**
- **Hirugarren sektore sozialeko erakundeen bestelako proiektuak.**

* Gradu hau HEFA-I erakinean ematen da.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 30 kreditu + nahitaezko 30 kreditu)

1. lauhilekoa

- Estatistika Hezkuntzan
- Garapenaren Psikologia
- Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasuna
- Hezkuntzaren Historia
- Hezkuntzaren Soziologia

2. lauhilekoa

- Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak
 - Hezkuntza Legeria eta Nazioarteko Ikuspegia
 - Hezkuntzako Komunikazioa eta Harremanak
 - Identitate eta Garapen Profesionala
 - Pedagogia: Teoria eta Hezkuntza Erakundeak
-

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 30 kreditu + nahitaezko 30 kreditu)

1. lauhilekoa

- Didaktika Orokorra
- Gizarteratze eta Baztertze Prozesuak
- Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa
- Hezkuntzaren Psikologia
- Prozesuen, Zerbitzuen eta Hezkuntza Erakundeen Antolakuntza eta Kudeaketa

2. lauhilekoa

- Esku-hartzearen Plangintza
 - Gizarte eta Hezkuntza Ikerketa
 - Gizarte eta Hezkuntza Programa eta Zerbitzuen Ebaluazioa
 - Gizarte eta Hezkuntzako eta Bazterketa Egoeretako Esku-hartzea: Proposamen Metodologiko Orokorrak
 - IKTak Gizarte Hezkuntzan
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (36 nahitaezko kreditu + 12 practicum + hautazko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Garapen Jasangarrirako Hezkuntza
- Gizarte eta Kultura Dinamizazioa
- Komunitate Garapena
- Practicum I

Hautazkoak

- Euskararen Arauak eta Erabilerak

2. lauhilekoa

- Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartzea Familia, Haurtzaroan, Nerabezaroan eta Gaztaroan
- Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartzea Pertsona Helduekin, Adinekoekin eta Mendekoekin
- Gizarte Heziketarako Esku-hartzea talde kaltetuetan

Hautazkoak

- Bizitza Aktiborako Trantsizioa
 - Familia Orientazioa
 - Hezkuntza eta Eleaniztasuna
 - Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza eta Gizarte Arloak
 - Kultura arteko Hezkuntza
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (30 practicum + hautazko 18 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Practicum II

Hautazkoak

- Ikerketa Proiektua
- Ikuspegi Soziolinguistikoak Gizarteko Esku-hartzean
- Lanbidearen eta Enpleguaren Garapenerako Orientazioa
- Talde Dinamika Gizarte eta Hezkuntza Jardunean

2. lauhilekoa

- Practicum III

GRADU AMAIERAKO LANA

HAUR HEZKUNTZA GRADUA



Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Haur Hezkuntza nahitaezkoa ez den hezkuntza-aldia bada ere, garrantzi handia dauka pertsonen prestakuntzarako. Izan ere, 0-6 urte bitartean hasten gara gure nortasuna garatzen, baita auto-estimua, izaera, balioak eta adimen emozionala ere. Irakaslea funtsezkoa da aldi honetan, haurren erreferente esanguratsuena delako, familiarekin batera.

Haur Hezkuntzako Graduan, prestakuntza akademiko teorikoa eta praktikoa eskuratuko duzu, erronka handi horri ekiteko. Haurren garapen pertsonalean laguntzeko beharrezkoak diren tresnak barneratuko dituzu, eduki zientifikoa, etikoa eta soziala, hizkuntzakoa, motorra, matematikoa eta teknologikoa duten gaien bidez.

Laugarren mailan, aipamen edo ibilbide hauek izango dituzu espezializatzeko: Atzerriko Hizkuntza; Hezkuntza Berezia; Euskara, Hezkuntza Tresna; eta, Haur Hezkuntzarako Tailerrak. Espezializazio horiek, batez ere, ikasle talde baten irakasle tutore gisa aritzeko gaitasuna emango dizute.

Bigarren mailatik aurrera, nahitaezko praktiken bidez, hezkuntza proiektuetan parte hartzeko aukera izango duzu hainbat ikastetxetan.

Sarrera baldintza:

Euskarazko B2 titulua izatea.

* Gradu hau HEFA-II erakinean ematen da.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Haurren nortasuna eta haien garapen emozionala, soziala eta kognitiboa bultzatzeko; lehen haurtzaroan, hizkuntzaren eboluzioa ezagutzeko; ikasketa autonomoaren eraikuntza errazteko; norbanakoan, gizartearen eta kulturen aniztasuna errespetatzeko; ikasgela barruan eta kanpoan bizikidetzak sustatzeko; familia hezkuntzari lotutako gaietan gurasoak orientatzeko; eta egungo gizartean hezkuntzaren funtzioa, aukerak eta mugak ezagutzeko.

Irteera profesionalak:

Irakaslea, Haur Hezkuntzako zikloetan, ikastetxe publiko nahiz pribatuetan.

Baita hezkuntzari lotutako beste arlo batzuetan ere: ospitaletako gelak, espetxetako gelak, gobernuz kanpoko erakundeak, museoak, ludotekak, argitaletxeak, etab.

0-6 urte bitarteko haurren nortasuna, autoestimua, izaera, balioak eta adimen emozionala garatzea interesatzen bazaizu, umeez ikasteko duten jakin-mina eta interesa proiektuen eta tailerren bitartez aztertu eta horretarako beharrezkoak diren lan tresnetan sakondu nahi baduzu eta gizartea hobetzeko txikienetik hasi behar dela uste baduzu, zure aukera onena Haur Hezkuntza Gradua da.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 42 kreditu + nahitaezko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Garapenaren Psikologia Eskola Adinean
- Hezkuntzaren Soziologia
- Hezkuntzaren Teoria eta Historia
- Irakasle Funtzioa
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena - Euskara eta Gaztelania - Haur Hezkuntzan I

2. lauhilekoa

- Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I
- Didaktika Orokorra
- Garapen Psikomotorra I
- Hezkuntzaren Psikologia
- Musika Adierazpenaren Garapena I

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 19 kreditu + nahitaezko 41 kreditu)

1. lauhilekoa

- Ikastetxearen Antolakuntza (urtekoa)
- Practicum I (urtekoa)
- Haurtzaroaren Psikologia
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena - Euskara eta Gaztelania - Haur Hezkuntzan II
- Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan

2. lauhilekoa

- Ikastetxearen Antolakuntza (urtekoa)
- Practicum I (urtekoa)
- Eskola Inklusiboaren Oinarriak
- Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza
- Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanizetan
- Informazio eta Komunikazio Teknologia Haur Hezkuntzan

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza (urtekoa)
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (urtekoa)
- Practicum II (urtekoa)
- Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika
- Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan

2. lauhilekoa

- Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza (urtekoa)
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (urtekoa)
- Practicum II (urtekoa)
- Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan II
- Garapen Psikomotorra II
- Musika Adierazpenaren Garapena II

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 18 kreditu + hautazko 30 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

Urtekoa

- Practicum III
- **GRADU AMAIERAKO LANA**

Hautazkoak

- Ahozko Adierazpenerako Baliabideen Tailerra (4A)
- Ahozko Euskal Literatura (2A)
- Baliabideen Tailerra I (1A)
- Baliabideen Tailerra II (1A)
- Eskola Testuen Tailerra (2A)
- Gizarte Ingurunean Esperimentatzeko Tailerra (4A)
- Gorputz, Musika eta Plastika Adierazpenerako Baliabideen Tailerra (4A)
- Haur eta Gazte Literatura (2A)
- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleak I (1A)
- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleak II (1A)
- Hezkuntza Premia Bereziei Erantzutea I (1A)
- Hezkuntza Premia Bereziei Erantzutea II (1A)
- Ingelesa (3A)
- Ingelesaren Didaktika I (3A)
- Ingelesaren Didaktika II (3A)
- Irakurzaletasunaren Sustapena (2A)
- Komunikazio Gaitasunak Ingelesez I (3A)
- Komunikazio Gaitasunak Ingelesez II (3A)
- Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza eta Gizarte Arloak
- Matematika Adierazpenerako eta Irudikapenerako Baliabideen Tailerra (4A)
- Zientzia Tailerrak Haur Hezkuntzan (4A)

2. lauhilekoa

- Erlijioaren Fenomenologia
- Euskararen Arauak eta Erabilerak

AIPAMENAK

- Hezkuntza Berezia (1A)
- Euskara, Hezkuntza Tresna (2A)
- Atzerriko Hizkuntza (3A)
- Haur Hezkuntzarako Tailerrak: 0-6 Zikloa (4A)

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA



Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Lehen Hezkuntzak 6 eta 12 urte bitarteko hezkuntza aldia hartzen du. Hezkuntza aldi horretan, haurren garapen pertsonalean eta soziokulturalean laguntzen da, eta bizitza osoko ikaskuntzarako oinarriak prestatzen dira. Irakasleen eginkizuna funtsezkoa da aldi horretan.

Lehen Hezkuntzako Graduan, beharrezkoa den prestakuntza akademiko teorikoa eta praktikoa eskuratuko duzu, erronka handi horri ekiteko. Haurren garapen pertsonalean laguntzeko beharrezkoak diren tresnak barneratuko dituzu, eduki zientifikoa, etikoa eta soziala, hizkuntzakoa, motorra, matematikoa, teknologikoa eta didaktiko/pedagogikoa duten gaien bidez.

Aukera izango duzu aipamen edo ibilbide hauetan espezializatzeko: Atzerriko Hizkuntza; Hezkuntza Berezia; Euskara, Hezkuntza Tresna; eta, Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak Lehen Hezkuntzan. Egindako aipamenean, irakasle tutore eta irakasle espezialista gisa aritzeko gaitasuna eskuratuko duzu, batez ere, Atzerriko Hizkuntzaren eta Hezkuntza Bereziaren kasuan.

Horrez gainera, bigarren mailatik aurrera, nahitaezko praktiken bidez, irakasle lanak inplikatzan dituen alderdietan parte hartzeko aukera izango duzu hainbat ikastetxetan.

Sarrera baldintza:

Euskarazko B2 titulua izatea.

* Gradu hau HEFA-II erakinean ematen da.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Gaur egungo gizartean, hezkuntzaren funtzioa, aukerak eta mugak ulertzeko; aniztasuneko testuinguruetan, genero berdintasuna, parekidetasuna eta giza eskubideen errespetua aintzat hartuko dituzten ikaskuntza espazioak diseinatzeko; ikasgela barruan eta kanpoan bizikidetzaren sustatzeko; ikasleak estimulatu, eta haien ahalegina baloratzeko; ikasgeletan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatzeko; eta, hizkuntzen ikaskuntza egoerak lantzeko, askotariko kultura eta hizkuntza testuinguruetan.

Gradu hau bukatutakoan Pedagogiakoa eskuratzeko, 90 ECTS egin behar dira.

Irteera profesionalak:

Irakaslea, Lehen Hezkuntzako etapan, ikastetxe publiko nahiz pribatuetan.

Baita hezkuntzari lotutako beste arlo batzuetan ere: ludotekak, museoak, ospitaletako gelak, espetxetako gelak, gobernuz kanpoko erakundeak, argitaletxeak, etab.

6-12 urteko haurren garapen kognitiboa, afektibo-emozionala eta psikomotorea interesatzen bazaizu eta horri buruzko prestakuntza praktiko-teoriko beharrezkoa eskuratu nahi baduzu; gai ezberdinen gaitasunak garatzeko lan tresnak eskuratu nahi badituzu eta gizartean berdintasuna bultzatzeko 6-12 urte bitarteko haurren hezkuntza hobetu behar dela uste baduzu, zure aukera onena Lehen Hezkuntza Gradua da.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 42 kreditu + nahitaezko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Garapenaren Psikologia Eskola Adinean
- Hezkuntzaren Soziologia
- Hezkuntzaren Teoria eta Historia
- Irakasle Funtzioa
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena - Euskara eta Gaztelania - Lehen Hezkuntzan I

2. lauhilekoa

- Didaktika Orokorra
 - Gizarte Zientziak eta beren Didaktika I
 - Hezkuntzaren Psikologia
 - Matematika eta bere Didaktika I
 - Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I
-

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 18 kreditu + nahitaezko 42 kreditu)

1. lauhilekoa

- Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza (urtekoa)
- Practicum I (urtekoa)
- Informazio eta Komunikazio Teknologia Lehen Hezkuntzan
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena - Euskara eta Gaztelania - Lehen Hezkuntzan II
- Musika Lehen Hezkuntzan

2. lauhilekoa

- Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza (urtekoa)
 - Practicum I (urtekoa)
 - Eskola Inklusiboaren Oinarriak
 - Ikastetxearen Antolakuntza
 - Lehen Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan
 - Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Gizarte Zientziak eta beren Didaktika II (urtekoa)
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (urtekoa)
- Matematika eta bere Didaktika II (urtekoa)
- Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan II (urtekoa)
- Practicum II (urtekoa)
- Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktika

2. lauhilekoa

- Gizarte Zientziak eta beren Didaktika II (urtekoa)
 - Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (urtekoa)
 - Matematika eta bere Didaktika II (urtekoa)
 - Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan II (urtekoa)
 - Practicum II (urtekoa)
 - Atzerriko Hizkuntza eta bere Didaktika
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 18 kreditu + hautazko 30 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

Urtekoa

- Practicum III
- **GRADU AMAIERAKO LANA**

Hautazkoak

- Baliabideen Tailerra I (1A)
 - Baliabideen Tailerra II (1A)
 - Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleak I (1A)
 - Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleak II (1A)
 - Hezkuntza Premia Bereziei Erantzutea I (1A)
 - Hezkuntza Premia Bereziei Erantzutea II (1A)
 - Ahozko Euskal Literatura (2A)
 - Eskola Testuen Tailerra (2A)
 - Haur eta Gazte Literatura (2A)
 - Hizkuntza eta Teknologia: Baliabideak (2A)
 - Irakurzaletasunaren Sustapena (2A)
 - Ingelesa (3A)
 - Ingelesaren Didaktika I (3A)
 - Ingelesaren Didaktika II (3A)
 - Komunikazio Gaitasunak Ingelesez I (3A)
 - Komunikazio Gaitasunak Ingelesez II (3A)
 - Gizarte Zientzien Tailerra (4A)
 - Kultura Arteko Komunikazioa (4A)
 - Lehen Hezkuntzarako Baliabide Matematikoen Tailerra (4A)
 - Musika, Plastika eta Gorputz Hezkuntzako Tailerrak (4A)
 - Zientzia Tailerrak (4A)
 - Erljioaren Fenomenologia
 - Euskararen Arauak eta Erabilerak
 - Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza eta Gizarte Arloak
-

AIPAMENAK

- Hezkuntza Berezia (1A)
- Euskara, Hezkuntza Tresna (2A)
- Atzerriko Hizkuntza (3A)
- Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak Lehen Hezkuntzan (4A)

PEDAGOGIA GRADUA

Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Hezkuntza eta prestakuntza dira tresna eraginkorrenak bai gurea bezalako gizarte moderno baten garapenerako, bai gizabanako nahiz erakundeen hazkunderako. Gaur egungo jakintzaren gizarteak profesionalak behar ditu, aurrez aurre ditugun erronka berriei ekiteko. Haien esku dago transformazioaren motor nagusia.

Pedagogiako Gradua prestakuntza teorikoa eta praktikoa emango dizu prestakuntza sistemak eta prozesuak antolatzen, lantzen eta ebaluatzen ikas dezazun, hainbat arlotan. Hezkuntza eta prestakuntza ekintzak orientatzeko gai izango zara. Horretarako, prestakuntza jasoko duzu hainbat arlotan: giza eskubideak, komunikazioa, berrikuntza, psikologia, soziologia, gatazken ebazpena eta inklusioa, besteak beste.

Zentro, zerbitzu eta enpresa sare zabal bat dugu eskura, non nahitaezko praktikak egin eta lanbidea bertatik bertara ezagutzeko aukera izango duzun.

Pertsonen eta erakundeen prestakuntzari, gizarte garapenari eta lanari lotutako guztia interesatzen bazaizu, gizarte trebetasunak eta ekimenerako gaitasunak badituzu eta, gainera, gizarte ingurunea errespetatzen duen pertsona bazara, zure lekua Pedagogiako Graduan dago.

** Gradu hau HEFA-I eraikinean ematen da.*



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Hezkuntza programak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko; hezkuntza gaietan jakintza kritiko esanguratsua eraikitzeko; sormen materialak ekoizteko; laneko garapena bultzatuko duten prestakuntza proposamenak planifikatzeko; pertsonak, taldeak, testuinguruak eta hezkuntza erakundeak aztertze eta diagnostikatzeko, esku hartze pedagogikoaren oinarriak finkatu eta hura garatzeko.

Gradu hau bukatutakoan Gizarte Hezkuntzakoa edo Lehen Hezkuntzakoa eskuratzeko, 90 ECTS egin behar dira.

Irteera profesionalak:

Hainbat arlotan lan egiteko aukera izango duzu:

- Ikerketa eta hezkuntza: orientazio pedagogikoa, hezkuntza berrikuntza kabineteak; material didaktikoen sorkuntza; gurasoentzako kabinete pedagogikoa, pedagogia terapeutikoa, etab.
- Gizarte eta kultura: esku hartze pedagogikoa museoetan; gizarte zerbitzuak; hizkuntza normalizazioa eta eleaniztasuna; gizarte, hezkuntza eta kultura zerbitzu eta esku hartze enpresak; ezgaitasunari lotutako esku hartze zerbitzuak.
- Prestakuntza eta enpresa: etengabeko prestakuntza, laneko orientazioa, prestakuntza zerbitzuak (coaching, mindfulness, etab.), ikaskuntza soluzioak (e-learning), prestakuntza materialen diseinua, etab.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 30 kreditu + nahitaezko 30 kreditu)

1. lauhilekoa

- Estatistika Hezkuntzan
- Garapenaren Psikologia
- Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasuna
- Hezkuntzaren Historia
- Hezkuntzaren Soziologia

2. lauhilekoa

- Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak
- Hezkuntza Legeria eta Nazioarteko Ikuspegia
- Hezkuntzako Komunikazioa eta Harremanak
- Identitate eta Garapen Profesionala
- Pedagogia: Teoria eta Hezkuntza Erakundeak

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 30 kreditu + nahitaezko 30 kreditu)

1. lauhilekoa

- Didaktika Orokorra
- Gizarteratze eta Baztertze Prozesuak
- Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa
- Hezkuntzaren Psikologia
- Prozesuen, Zerbitzuen eta Hezkuntza Erakundeen Antolakuntza eta Kudeaketa

2. lauhilekoa

- Ebaluazioa Hezkuntzan
- Hezkuntza Arloko Ikerketa
- Hezkuntzarako Informatika Baliabideak
- Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza
- Informazioaren Bilketa eta Analisi Prozedura

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 30 kreditu + 6 practicum + hautazko 24 kreditu)

1. lauhilekoa

- Diagnostika Hezkuntzan
- Ezintasuna eta Inklusioa
- Hezkuntzan Esku-hartzeko Ereduak
- Prestatzaileen Prestakuntza
- Taldeetan Esku-Hartzeko Estrategiak

Hautazkoak

- Euskararen Arauak eta Erabilerak

2. lauhilekoa

- Practicum I

Hautazkoak

- Ekonomia, Hezkuntza eta Lana
- Hezkuntzako Esku-hartzea Testuinguru Eleaniztunetan
- Hezkuntzarako Aholkularitza eta Laguntza
- Hizkuntzen Irakaskuntza eta Ikaskuntza
- Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza eta Gizarte Arloak
- Lanbide eta Lan Orientazioa
- Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (24 practicum + 6 nahitaezko + 18 hautazko + 12 Gradu Amaierako Lana)

1. lauhilekoa

- Hezkuntza Ekintzaren Teoria eta Praktika
- Practicum II

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Etengabeko Hobekuntza eta Ekimena
- Gaur Egungo Hezkuntza Euskal Herrian
- Hezkuntzako Esku-hartzea Gatazken Ebazpenean
- Osasuna eta Hezkuntza

GRADU AMAIERAKO LANA



UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitez.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu:
www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.
Azken eguneraketa: 2024ko abendua.